


# Baserri giroan

Baserri giroko paisaiak, Euskal Herrian, mota ugaritakoak dira. Nekazariak egiten duen lanaren arabera, paisaia aldatu egiten da: laboreak, mahastiak, baratzak, basoak, belardiak edota soroak (oso lur gutxi dago gizonak landugabea). Paisaiarik ugariena, soroak eta zelaiena izaten da. Baina lurralde batetik bestera alda daiteke: lur sailak sasiz inguratuturik egon daitezke, edota mugarik gabeko lur sail zabalak izan daitezke.



## Herri batean bizi

Herri txiki batean, jende gutxi bizi denez, mundu osoak elkar ezagutzen du. Bizimodua, hirietakoa baino atseginagoa gertatzen da, baina konplikatuagoa izan daiteke: eskolarik ez badago, ezta medikurik edo dendarik ere, gertuen dagoen hirira edota herri handiago batera joan beharra dago.

## Bigarren etxeak

Bada herrian urte osoan bizi ez den jenderik: gero eta ugariagoa da hirian bizi eta baserri giroko herrietan etxe zaharrak erosi edota txaletak eraikitzen dituen jendea, asteburuetan eta oporretan egonaldiak egiteko. Jende honen bigarren etxea da.

Erliebeak ere alda dezake paisaia: mendixkak, lautada handiak...  
 Etxeak eraikitzeko moduak ere aldatzen du baserri giroko paisaia, baita bertako bizilagunen bizimodua ere. Euskal Herriko zenbait lurraldetan, etxeak oso elkartuta daude eta herritxo bat osatzen dute, inguruetan hainbat landetxe edo baserri daudelarik. Beste zenbait lekutan, etxeak oso sakabanaturik daude, baserri bakoitzak bere lur sailak inguruan dituelarik.

#### Herri bateko lanbideak

Aspaldi, herriko biztanlerik gehientsuenak nekazariak edo artisauak ziren, eta beti leku berean lan egiten zuten.

Gaur egun, askok gertuko hiri edo herri handian lan egiten dute, edota baserrien inguruan kokatzen diren fabriketan.

#### Landetxeak edo baserriak

Baserri eta landetxeetan, gero eta makineria hobea erabili beharrean aurkitzen dira, bai lurra lantzeko eta baita ganadua hazteko ere. Horregatik, baserriak eta landetxeak gero eta handiagoak izatera behartuta daude.